

## diskoak



## Mercury Rev

Deserter's songs ■ V2 - Caroline

## Ametsetako hegaldia

Ametsa hitza agertzen da disko bikin honetako lehen hiru kantuetan. Ametsen soinu banda ote? Bada, zergatik ez. Holes kantu zoragarriaren lehen doinuetatik arima eta bihotza hegan joaten zaizkigu. Ia orkestra oso baten laguntzaz -biolinak, pianoa, flauta, tronpeta, tron-

boia, saxofoia, organoa, klabor-dioa, soprano ahotsak...-, hodei batetik mendiak, deltak, trenak, autopistak eta jainkosak begiztatuko ditugu.

Barrokismo instrumentala kantuen sinpletasunaren zerbitzura jarri du Mercury Rev, eta horrek bereizten du *Deserter's songs* hau Spiritualized edota Manta Ray bezalako taldeen diskoetatik. Hemen ez dago hamar minutuko abesti amaigaberik, ez dago soinu anabasarik, ez dago giro bihurrik, ez dago ahots mindurik, ezta iluntasunik ere. Hemen (ia) dena argitasuna da, itxaropena eta edertasuna (*Tonite it shows*, *Opus 40*, *Endlessly*, *Goddess on a hiway*). *The funny bird*, berriz, ondo egokituko litzateke Kitaren *Hana-Bi* filmean.

Garai batean martetartzat jo zuten Mercury Rev seikoteak lurtean jarri ditu hankak, gizakion sentimenduetatik (nostalgia, itxaropena, malenkonia...) askoz hurbilago dauden kantuetatik eskaintzeko. Egin diezategun txoko bat gure artean. ■ jon eskisabel



## La Vacazul

Pelo de Perro ■ Zero Records

Pelo de Perro honen lehen akordetik argi geratzen da rhythm & bluesaren jarraitzaile fidelak direla La Vacazul taldekoak. *Feeling* aren bila ari diren gitarra indartsuak, Hammonda nonahi, oinarri erritmiko sendoa... musika estilo horren ezaugarriak betetzen ditu, inondik ere, Madrilgo taldearen lan berriak. Alde horretatik, rock and roll indartsua egiten du La Vacazulek, orain dela urte batzuk Los Enemigos eta Los Del Tonos taldeek egin zutenaren ildoan. Begiak 70eko hamarkadan jarriak ditu La Vacazulek, eta, ondorioz, bluesak hard-rockera egiten du jauzi zenbait unetan (*Psicocropo* n adibidez); baina, hala ere, disko homoginoa da. Horretatik, hain zuzen ere, gusta-

garriagoa da dosi txikietan -*Perdona*, *Chancro y el eje podrido* eta *Vete* kantuetan esaterako- osotasunean baino. Hori bai, taldeak zuzenean gau beroak eskainiko dituela erakusten du. ■ mikel lizarralde



## Mastretta

Melodías de rayos X ■ Subterfuge

XXI. mendea miran dugunean, musika munduan gauzak gero eta nahasiagoak, eta, halaber, aberatsagoak ageri zaizkigu, eta horren adibidetzat Nacho Mastretta-ren lan berria har dezakegu. Madrilgar horrek *Melodías de rayos X* izenpean zapozet eta erreferentzia bitxiz beteriko 14 pasarte instrumental eskaintzen dizkigu, eta erreferentzia horiek 60ko eta 70eko hamarkadetako soinu bandetatik datorzkigu, Nino Rota edo Henry Manciniren kutsua somatu baitaiteke

doinu horietan; latin-jazzak giroa berotzen du, eta giro horretan, zure txorreradun alkandora dotoreena jantzita eta begiak itxi ondoren, film paregabea bizi dezakezu. ■ jon martija



## Zebda

Essence ordinaire

■ Gora Herriak / Esan Ozenki

Talde honetan Tolosa hiriko (Okzitania) ezaugarria dago: mestizajea, amorrua, ezintasuna, borroka... Baina aldi berean bide egoki eta baikorra. Kabiliako Lounes Matoub kantari erailari eskaintzen zaio lan berria, hirugarrena bilduma kontatzen ez bada. Horrelakoa da Zebdaren lana: gauzak txarto doaz, baina gogo baldin baduzu erabat hobe daitezke. Mezua zabaltzeko Magyd Cherfi kantari nagusiaren hitzez baliatzen dira. Hitz luzeak -rap, ragga, reggae eta

## Javier Sun-en...

## 10 ezinbestekoak

## 1. Highway 61 Revisited (Bob Dylan)

Dylan handiena da, eta hori bere disko onena da. Zoragarria da.

## 2. Live (Bob Marley)

Denok bizi izan dugun reggae garaiko disko bat da. Zuzenekoak.

## 3. My generation (The Who)

Ez zegoen hemen argitaratua eta kristorenak egin behar izan nituen eskuratzeko.

## 4. All mod cons (The Jam)

Garai bat gogorarazten dit, Lambretak eta abar.

## 5. The last fourfathers (The Prisoners)

Ezezagunak ziren, baina 80ko hamarkadako nire talde gustukoena da, nahiko psikodelikoa.

## 6. Buena suerte (Los Rodriguez)

Oso sentimentala, entzun nuen garaia gatik.

## 7. La casa de la bomba (Brighton 64)

Maxi bat da, baina garai hartan talderik handiena zen Brighton 64. Gainera, estudioan beraiekin egoteko aukera izan nuen.

## 8. Ragged glory (Neil Young)

Young ere nire artista gustukoenetakoa da, eta hau da bere diskorik onena.

## 9. Revolver (The Beatles)

60ko musika psikodelikoa entzuten hasi nintzenean, asko eragin ninduen.

## 10. Byrds play Dylan (The Byrds)

Roger McGuinn 13 urterekin entzutea eta ikustea izugarria izan zen.

halakoetan bezala-, erritmo hipnotikoak, dantzatzeko eta pentsatzeko aldi berean, nahasketa ederra... Baina dena ez dago begi-bistan: lan osagarria eskatzen du disko honek, kantuen zentzua hitzen azpian datzalako. Eguneroko bizitza kontatzen da, inguruari (auzoa, kontzertuak, jaiak...) lehenaldiari (15 urte nituela...) eta barruko aldeari begira. Aljeriako riff-ak eta giroa ageri dira kantuetan sakabanaturik, jaioterriarekiko lotura ez apurtzeko; baina erreferentzia zehatz horien gainean gaurko soinuak gobernatzen du: programaketak, sample-rrak, teklatuak era orekatu batean. «Kalean sortua naiz, hau da, esan dezadan Tomateak belar finak ezabatu zituela eta txanpaina Fanta zela». Kaletarrak izateaz harroak. ■ roberto kribi

## jarrita

## beste

**C.V taldea** bigarren diskoarekin da kalean. Blues eta rock klasikoaren bigarren koktela aurkeztu du Caballos de Vapor (C.V.) talde eibartarrak, TX disketearekin batera: *tarDe perO Seguro*

izeneko diskoa. Hamahiru urte ditu C.V taldeak. Izan ere, Enfermos izenarekin ekin zioten ibilbideari, eta orain 11 urte formazioa eta izena berri zizuten. Taldekideek aitortzen dute zuzenekoak dela haien ezaugarria, eta diskoaren aurkezpena ere hala egiteko asmoa dutela adierazi dute: zuzenean. Urte berria kontzertuak eskainiz hasiko dute, beraz, C.V taldeko kideek.

*Destino oscuro* izeneko diskoa kaleratu berri du **Trauma** taldeak. Izan ibilbidearen garapenaren azken fruitua da lehen iraupen luze lan hori. «Definitu ezina» dela haien musika diote taldekideek, eta oraingoan indar gehiagoko erritmoak ditu disko berriak. Hitzak landuagoak dira, eta erritmoak gutxi entzundakoak. Gizakiaren jarrerari eginiko kritika gogorra da bilbotar hauen *Destino oscuro* lana.

Ruper Ordorikak eta Fermin Muguruzak Logroñoeko **Actual** jaialdiaren parte hartu dute egunotan. Actual Espainian egiten den kulturari, eta bereziki musikari, eskaintako jaialdia da, eta irauten duen zortzi egunetan musika kontzertuak, mahai-inguruak, film emankizunak eta bestelako ekitaldiak biltzen ditu. Ruper Ordorikak mahai-inguru batean parte hartu zuen joan den larunbatean Kiko Venenorenkin batera, eta Fermin Muguruzak ere solasaldi batean parte hartu zuen Manu Chao lagun zuela. Beste solasaldi batean Mikel Ereñunek hartu zuen parte.

BERTSO-HOP  
DISKAKDIZKAL KALEA 1, 48100 20300  
TEL/FAX 631726Apoaren Edertasuna  
Joseba Tapia - Koldo OzaguirreEMANALDIA: Bihar Elorrión  
Arriola aretoan